

Deia

DEIA - 2023 maiatzak 21 igandea



ibilaldia 2023

ONDARROA ZUBI ZAHAR HERRI IKASTOLA

geU
ga eUSten dāben herriXe



**Zubi Zahar
Herri Ikastola**
Bide berriak zabaltzen



ikastolenelkartea

Bizkaia
interbiak

xe ibilaldia 2023
ONDARROA ZUBI ZAHAR HERRI IKASTOLA

MAIATZAK
21

ONDARROA



Interbiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren
sozietate publikoa, ordainpeko
errepideen kudeatzailea,
parte-hartzaileei garraio publikoa
erabiltzea gomendatzen die.

*euskararen
bidea!!*



AGURRAK



Erronka ederra da!

HIRUGARRENEAN ospatuko da IbilaldiXE Ondarroan, maiatzaren 21ean. Aurten, gainera, Zubi Zahar herri ikastola izango da antolatzaile bakarra. Erronka ederra da! Eta ilusioz gainezka dihardugu urte guztian lanean egun hori posible egiteko, ez bakarrik ikastolako lehengo eta gaur egungo irakasle, ikasle eta gurasook, ez badaze herri osoa, jakin baitakigu herri osoak hartu duela eskuzabal eta gogotsu. Oso presente dauzkagu helburuak, besteak beste, arkitektura pedagogia berrietara egokitzeko baliabide ekonomikoak lortzea, ikaslea ardatzean eta erdigunean jarri eta lanerako espazio erakargarriak sortzen ari baikara, espazio zabalak eta argiak. Eta beti gogoan izanda nondik gatozen. Zubi Zahar Herri Ikastola duela bost hamarkada baino gehiago herritik sortutako proiektua da, herriarena. Euskal Herri osorako hezkuntza sistema euskalduna, euskara eta lurraldetasuna ardatz zentralak dira gurean, lehen zein orain. Horrela, geure helburu propioez gain, ikastola guztienak egiten ditugu geure. Guztion elkartasunarekin, alde batetik, ikastola berriak sortuz doaz, eta, bestetik, sortuta daudenak sostengatzen dira. Ibilaldiko abestian bertan ere badiogu horixe berori, beste hitz batzuekin: "Ez da jausiko zubixe". Hizki jolasti bi aukeratu ditugu lelotzat: Xe. Batetik, Ibilaldiari berari keinua eginez, Ibilaldiari IbilaldiXE esaten diogulako, eta bestetik, hizkuntzarekin jolastu eta geurera ekarri nahi izan dugulako. Geure gustuz busti. Hizki soil bi horiek izan ditugu bidelagun honaino, eta azken txanpan gauden honetan, irrikitan gaude zuekin guztiarekin jolasten jarraitzeko. Hortaz, animatu eta etorri denok maiatzaren 21ean Ondarroara. Egitarau oparoa daukagu prest esku artean, edonork gozatzeko modukoa. Ongietorriak izango zarete kresalez eta euskaraz bustitako gure herrira. Ederra izango da! ●

Eider Galarraga Solabarrieta
Egusentia kooperatibako lehendakaria

Aisialdian euskararen erabilera sustatzea oso garrantzitsua da

MAIATZAK 21. Heldu da Bizkaiko ikastolen jai handia ospatzeko eguna. Milaka euskaltzale eta ikastolazale batuko gara Ondarroan, Zubi Zahar ikastolak antolatutako Ibilaldian. Hasteko, zoriandu nahi ditut egun hau prestatzen aritu diren eta egunean bertan lanean ibiliko diren guraso, irakasle, irakasle eta lagun guztiak. Eskerrik asko bihotz-bihotzez. Hainbat ekitaldi izango ditugu giro ezin hobean egun zoragarria pasatzeko eta ikastolen ereduari babesa emateko. Ibilaldiak beti dira euskarari eta euskal kulturari bultzada emateko egunak, baina aurten inoiz baino gehiago esan dezakegu hori, Ondarroak euskaraz gozatzeko aukera paregabea eskainiko baitigu. Hain goxoa den hizkera hori edonon entzun ahalko dugu. Aurten leloak adierazten duen moduan, 2023an Ibilaldia Ibilaldixe da eta herrix, zubixe, talaxe, mazixe... Horiek dira, hain zuzen ere, 4 guneen izenak: musika, dantza, bertso saioa, tailerrak, puzgarriak, ikuskizunak... denetik izango dugu. Zorionez, euskararen ezagutza maila gero eta altuagoa da, baina zenbait esparrutan, adibidez aisialdian, erabilera sustatzea oso garrantzitsua da, eta horretarako, ikastolen jaiak oso aproposak dira. Egia hori osoan zehar prestatu dira ekitaldiak. Ikastolako familia handia aritu izan da lanean herriko eragile guztiarekin batera, eta emaitza oso positiboa izan da. Izan ere, elkarlana ikastolan lantzen den balioetako bat da baita berdintasuna, hezkidetzak, jasangarritasuna, aniztasuna... ere, beti euskarari eta euskal kultura ardatz hartuta. Eta Ibilaldia horien guztien isla da. Ikastolak euskararen egoera iraultzeko jaiotze gaitzak dira, euskaraz egiteko eta euskaraz eragiteko. Horretan dihardugu, eta horretan arituko gara etorkizunean ere. Hezkuntza eraldatzen jarraitu nahi dugu, ikaslea erdigunean jarrita, pertsona euskaldun konprometituak gizarteratzeko. Gazte kritikoak, ekintzaileak, gauzak hobetzeko lan egingo dutenak, ondokoa laguntzeko prest daudenak eta zoriotsuak nahi ditugu. Laster, Hezkuntza Lege berria izatea espero dugu, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako eta ikastolak, beti bezala, Euskal Hezkuntza Sistema eraikitzen laguntzeko prest gaude. Erronka askori egin beharko diegu aurre, hala nola, jaiotze tasaren beherakada, familia zaugarriak, ikastetxe txikiak..., helburu argi batekin: gure seme-alabak hezteko eta gizarte hobe bat lortzeko. Elkarrekin jardungo dugu lanean, elkarlanean, sarean...

M. Josune Bañales Regulez
Ibilaldia Elkartearen lehendakaria



HIRUGARREN IBILALDIA JASOTZEKO GOGOTSU



1983ko Ibilaldia iragartzeko ekitaldi ba



2011ko Ibilaldiko kontzertu bat, Zaldupe futbol zelaian.



2011ko Ibilaldian, erraldoiak Itsasauraren.



2011ko Ibilaldian, Alde Zaharrak apainduta.



1993ko Ibilaldiko irudia.



2011ko Ibilaldiko Ibilaldian, hainbat gazte ibilbidea egiten.



2011ko Ibilaldian, hainbat gazte kontzertu batez gozaten.

Aurreko Ibilaldietako irudiak, egun handiaren iragarle!

ONDARROAKO Zubi Zahar Herri Ikastola lau bider aritu izan da Bizkaiko ikastolen aldeko jaiaren antolakuntzan Lekeitioko Azkue ikastolarekin elkarlanean, eta horietatik bitan Ondarroan ospatu da. Zehatz esanda, hauek izan dira bien artean antolatutako Ibilaldien datak eta kokapena:
1983an, Lekeition. 2003an, Lekeition.
1993an, Ondarroan. 2011n, Ondarroan.
Hortaz, Ondarroako Zubi Zahar Herri Ikastolak bosgarren Ibilaldia izango du, hirugarrena herrian eta estreinako antolatzaile bakar. Maiatzaren 21eko hitzordua ate joki, aurreko aldiak irudiak ditugu hauek, egun handiaren iragarle! ●



2011ko Ibilaldiko hasiera ekitaldia, Zubi Zahar Herri Ikastolan.



2011ko Ibilaldian, Zubi Zahar Herri Ikastolako umeen ikuskizuna.



2011ko Ibilaldian, jendea ibilbidea egiten.

**DANON IBILALDIXE!
EUSKERIN JAXE!
DANON HERRIXE!
ONGI ETORRIXE!**

IBILALDIA 2023
ZUBI ZAHAR IKASTOLA
MAIATZAREN 21, ONDARROAN

1. GUNEA



Zubi zahar herri ikastola-Zubixe

AURTENGO Ibilaldiaren antolatzaile izanik, Zubi Zahar herri ikastola izango da protagonista, eta jai giroa herri osora zabalduko du, ikastolaren kokagunetik bertatik hasita, hantxe egokituko baita, halaberrez, guneetako bat. Gainera, herriaren mutur batean egonik, ibilbidearen abiapuntu ezin aproposagoa da: era berean, sinbolismoz betea. Hortik dator gunearen beraren izendapena ere. "Zubixe" deitu diote, ikastolaren izenaren parte eta izaeraren adierazle delako antolatzaileen

esanetan. Izan ere, herriko eraikin ikoniko bati zor dio izena Ondarroako ikastolak, Zubi Zaharri, haren alboan kokatuta egon baitzen urte askoan –aurretik beste bi lekutatik pasatu ostean–, baina hori eta gehiago ere badela iradokiz. "Ikastola transmititzaile izan da eta da, euskararena eta euskal kulturarena, elkarri lotu eta elkarrengana hurreratzeko bide, eta zubi bat ideia horren ikur aproposa da", adierazi dute.

Ez hori bakarrik: zabalena ere badenez, bi eremutan banatuta egongo da lehenen-

go gune hori: alde batetik, ikastolako jolastokia, eta, bestetik, parkea. Gainera, tokatzen den eran, jolastokian izango da inaugurazio ekitaldia 10:00etan, eta bertatik abiatuko dira 11:00etan Ondarroako Kresalako musika banda eta Artelaneko erraldoiak eta buruhandiak. Hain zuzen ere, Artelaneko erraldoiak beste Ibilaldi batean estreinatu zituzten orain 40 urte, Lekeitiokoan, ikastola biek elkarlanean antolatu zuten lehenengo ekitaldian. Erraldoiak bakarrik ez: Dantzan Kittu tal-

deak ere bertan ekingo dio kalez kale kaleak girotzeko zereginari, beranduxeari, 13:30ean.

Ekitaldiei dagokienez, ume eta nagusiek egitarauaz gozatzeko aukera edukiko dute bertan: jolastokian, Tomasen abenturak egongo dira, eta parkean bi ikuskizun, hots, Malas compañías eta Goazen, eta musika emanaldi bi, Andoni Ollokiegi artistaren kontzertua eta Garilak 26 erromeria taldea. Bestalde, gune honetan marmitakoa bazkaltzeko aukera egongo da.



1. gunea: Zubixe.

2. GUNEA



Ezkerretik eskumara eta goitik behera, Dena, Xabi Solano Maiza, Bad Sound eta Dupla.

Anexoa-Mazixe

BAKOITZAK bere gustuaren arabera, horrelaxe antolatu daitezke Ibilaldiko ekitaldien ibilbidea, gune batetik bestera erraz joan ahal izango da-eta, paraje ederrez gozatuaz joan ere, makina bat daudelako Artibai ibaiaren azken txanpako ibilbideari jarraituta. Behin Anexoan, gazteak oso eroso egongo dira, ez da alperrik eurekin propio pentsatutako guneetako bat. Horretarako, gazteen ahotsa hartu da kontuan, etxekoentatik hasita, ikastolako ikasle nagusien proposamenak egiteko eskatu baitzaie.

Eta gazteen artean egonik, Anexoan ez da faltako jairik, bizitasunik eta alaitasunik "Mazixe" izenak



2. gunea: Mazixe.

ondo adierazten duenez. Arrantzale herriaren egonik, horra ofizioarekin lotutako beste adiera bat. Garai batean bakailao urdail eta hesteak birrinduta egiten zen pasta da "mazixe", batez ere sardinatan, arraina erakartzeko erabili izan zutena, eta jai giroa ere iradoki dezakeela eta, horrela izendatu dute herriaren Anexoa, Zaldupoko futbol zelaiaren, kiroldegia eta eskolaren aldamenean.

Jaia bertan hastea erabakitzen dutenek goizean goizetik gozatu ahal izango dute ekimenez, eta ez nolana, Ondarroako bertoko musikariek, Dena rock taldeak irekiko guneko programazioa. Haren atzetik, Xabi Solano Maiza herna-

niarrak bildutako guztiak jarriko ditu dantzan eguerdi partean trikitia lagun eta berak bakarrik dakien eran, zer esanik ez arratsaldeko bi kontzertuek Bad soundek lehenik eta Duplak ondoren. Hain zuzen ere, momentu gozoan datoz azken horiek Ondarroara. Elektronika, errima satirikoak zein estribillo abesgarriak batzea markatzen eta Regetoietik Rockera erritmo bakarrera itxi gabe, landa eremuan musika urbanoa egiten duen talde honek kritikaren eta publikoaren harrera beroa jaso ditu Nahieran albumarekin eta zuzenean erakutsitako mailaren ondoren. Aguraindarrak arduratuko dira hango ekimenak zarratzeaz.



familia barnetegiak

Euskara ikasteko
Seme-alabekin euskaraz aritzeko

(B1, B2, C1)
Uztailaren 3tik 14ra | Uztailaren 17tik 28ra
Uztailaren 31tik abuztuaren 11ra



BIZI EUSKARA HURBILETIK
VIVE EL EUSKERA DE CERCA

udabarnetegiak@oek.eus
673 200 100 / 946 464 000

www.oek.eus



3. GUNEA



Ezkerretik eskumara, Shibari, Bizkaiblues eta Errietan.

Zeledonio-Herrixe

LEOAREKIN jolasteko gogo horretatik sortu dira guneen izenak, eta eureta-ko bat herriari zor zaiola irudituz deitu diote antolatzaileek Zeledonio guneari "Herrixe". Itsasoari begira bizi den herria izanik, ezaguri horrek bertakoen izaeran eragin zuzena eduki du ikastolakoek diotenez. Horrela, "Iraxe" eta "Argixe" da Ondarroa ikastolako esanetan; "Txikixe" eta, harro adierazi dute, era berean "Handixe".

Izpiritu berari jarraiki, Zeledonion bertoko eta inguruko herrietakoei leku egiten ahalegindu dira. Ikusi besterik ez dago kartelera: gune guztietako hasiera ordu berean, hau da, 11:00etan, Bizkaiblues boskotearen blues doinuak entzungo dira lehen-dabizi. Esperientziadun taldea – Jake Mate, Arima, Oskorri, Urrejola Brothers, Aterkings eta Giza

Proiektua taldeetan ibilitakoak dira-, bertsioak egitea dute marka. Ordu berean bi ekimen jarriko dira martxan: alde batetik, ginkana erronka, 19 jarduera desberdinekin; eta bestetik, Ondarroako Andrabanda Feministaren kalejira, azken hori Etxelilatik, Zeledonio alboan. Atal horretan, antolatzaileek gogoratu dute egitarauari itxura emateko orduan emakumei presentzia handiagoa eman nahi izan dietela, baina ezin izan dutela euren asmoa nahiko luketen eran bete. Nolanahi ere, pozik daude emaitzarekin. "Nahiko exigenteak izan gara geure buruarekin, programatzean nahikotxo talde egon zitezten, eta emaitza hor dago. 26 ekimen antolatuta dira, horietatik 18, guneetan; eta 8, ibiltariak".

Bertsolarien txanda helduko da eguerdian, "Sustraxe" definizioa-

ri erantzunez, hori ere herriari lotuta. Eta horiek amaitu eta arratsaldeko saioei ekin artean mokaduren bat ondo baino hobeto sartuko dela-eta, antxoekin asezteko aukera egongo da, Ondarroan egonik eta sasoa izanda, itsasoko produktu ederra eskura. Suspergarri bikaina izango da Shibari ondarrutarren post-rocka edo post-hardcorea entzuteko. Amaraun Arte Fabrikaren I. Maketa Lehiaketako irabazle izanda –herriari bertan grabatu zuten, Portuko ranpi herriko musikazaleen topagune ezagunenetakoa-, diskoa plazaratu berri dute, eta hango doinuak entzuteko parada edukiko dute Shibariri buruz gehiago jakin nahi dutenek. Azkenik, erromeria zaleek Mutrikuko Errietan taldearekin daukate hitzordua 17:00etan hasita.



3. Gunea: Herrixe.

4. GUNEA

Itsasaurre-Talaxe



Goian, arrain lonja gaineko plaza. Behean, Itsasaurre plaza.

ABANGUARDIAN daude ikastolak, jagole pape-rean; etorkizunera adi edo "allarte", ondarrutarrek esaten duten moduan. Eta itsasoak ematen du horretarako perspektiba. Horregatik deitu diote Itsasaurre kaleko guneari "Talaxe", aurreko mendeetan baleak, itsas herrietan arrain sardak eta ontziak begiztatzeo erabiltzen ziren goragune esanguratsuei erreferentzia eginez.

Inguruaz gozatzeaz batera, jai betearen murgiltzeko aukera eman-

go du Ibilaldiak maiatzaren 2leko hitzorduan. Eremu horretako egitaraua Estitxu RK-ko ikasleen dantza sorkuntzak zabalduko du Oretako Dantza konpainiak lagunduta – neurri batean bezperako ikuskizunaren segida izango bada ere, aurreko egunetik Ondarroan egongo baitira ikuskizuna eskaintzen-. Ostein eta aldi berean haren parte, mobilizazioa egingo da "Azterketak euskaraz" goiburua-ekin eta Lizeoko Kale animazioaren laguntzarekin, euskarak Ipa-

rraldean daukan egoerari ikusgarritasuna eman nahirik. Eguerdi parte horretan, Mutrikuko erral-dioiak eta txistulariak batu eta kalejiran irtengo dira.

Anje Duhaldek hartuko du jarraian lekukoa, 13:00etako hitzorduan. 70eko hamarkadatik martxan, musikari lapurtarrak, beste behin, adin desberdinetakoak bere musikaren amaraunean harrapatzen asmatuko du. Gainera, asko urrundu gabe, tripa-zorriak baretzeko aukera egongo da, parkinean Euskolabel produktuak eskuratu ahal izango baitira.

Musika doinu alaien laguntzarekin beste gune batera mugitu nahi duenak, hortxe aukera 15:30ean Sarako kantu bira ibiltaria eta Patapatanak Txarangarekin, eta, aldiz, beste batetik datozenek Pasadena taldearekin egingo dute topo. 16:00etan taularatuko dira Libe Garcia de Kortazar (Libe, Neubat, Izaki Gardenak) eta Jon Basaguren (Izaki Gardenak). Ahots harmonia bikainak, instrumentazio aberats eta dotorea eta haien ibilbideetako doinurik Ianduenak gozagarri izango ditu publikoak. Bata bestearen segidan, DJen txanda izango da: DJ Bull eta DJ Elepuntos zarratuko dute eskaintza musika ipiniatz. Bide batez, eurena izango da ekitaldirik berantiarrena.

Eta Itsasaurreko gunean ibiltzean, adi, ze asko urrundu gabe, kofradia gaineko plazan, 11:00etatik 19:00etara, Kaikuk Tik-tak txukun antzezlan eskainiko du; Euskaltelek, bizikleten ginkama; eta Eroskik, sukaldaritza tailerra.



Pasadena.



Anje Duhalde.



Irizar

Euskera maite dauan herrixe garalako,

gora Ibilaldia!

ehbildu



ERROINKA

ITZULI! ERMO BAT BEHAIZ ZINETZAT

Alkohola eta beira zirkuituan sartzea debekatua dago.

PRIMERAN PASA PASATU GABE

ERASO SEXISTARIK EZ!!

Jaiak aske bizi eta gozatu

ekainak 11
araba euskaraz
-EKIN 2023 OLARIZU

urriak 1
kilometroak

urriak 8
hotsein!
 Nafarroa Olerak 2023 - Foklorik Auzerak

ibilaldia 2023

2023KO MAIATZAREN 21EAN ONDARROAN



1. GUNEA ZUBIXE	2. GUNEA MAZIXE	3. GUNEA HERRIXE	4. GUNEA TALAXE
10:00 10:30 11:00 11:30 12:00 12:30 13:00 13:30 14:00 14:30 15:00 15:30 16:00 16:30 17:00 17:30 18:00	bbk eitb INAUGURAZIO EKITALDIA ZIRKU IKUSKIZUNA <i>Malas Companias</i> IKUSKIZUNA <i>Goazen</i> ANDONI OLLOKIEGI HAUR IKUSKIZUNA <i>Tomaxen abenturak</i> GARILAK 26	BIZKAIBLUES BERTSOLARIAK Uxue Alberdi, Xabat Galletxebeita, Aissa Intxausti eta Oihana Bartra. Gai jartzaileak: Inaki Lersundi SHIBARI ERRIETAN	ESTITXU RK-KO IKASLEEN DANTZA SORKUNTZA, ORERETAKO DANTZAZ KONPAINIAK LAGUNDUTA ANJE DUHALDE PASADENA DJ BULL ETA DJ ELEPUNTO

BESTELAKOAK

11:00-19:00 **BBK TAILERRA Ze giro gorixe + EITB GUNEA**

JATEKOA

HERRI BAZKARIA
 ENTSALADA+MARMITAKOAO+POSTREA [Marmitako errazioa eramateko]

ikuskitzen eta musika ibiltariak

11:00 EUSKAL HERRIKO JOALDUNAK ikastolatik abiatuta. Ondarroako ANDRABANDA FEMINISTA ONDARROAKO ARTELANeko ERRALDOIAK ETA KRESALA-KO MUSIKA BANDA Ibilaldixe Eronka

11:30 MOBILIZAZIOA-ANIMAZIOA: "AZTERKETAK EUSKARAZ", Lizeoko Kale animazioaren laguntzaz Irteera 4, Gunetik.
 13:30 Kalez Kale Dantzaren Kifturekin Mutrikuko Erraldoiak eta txistulariak

15:30 SARAKO KANTU BIRA IBILTARIA PATAPATANAK TXARANGAREKIN

Zubi Zahar Herri Ikastola
 Bide berriak zabaltzen ikastolenkartea

ABESTIA, BIDEOA ETA EUSKAL JAIXE

ABESTIA ETA BIDEOA

Kantua eta Melodia

IBILALDIKO kantua eta melodia Axular Arizmendi musikari eta ekoizleak sortu ditu AME estudioetan, eta abeslariak Aiora Renteria eta Eñaut Elorrieta izan dira. Mutrikuarrak euskal instrumentu zaharrak eta elektronikak fusionatu ditu. Erritual eta aklarre batean sortzen den sinergia da, Leokadi Ondarroako pertsonaia ere barruan dela. Bide batez, Ondarroako eta Euskal Herriko marinel guztiei omenaldi txiki bat egiten dio.

TURRUN HOTSA

Turrin hotsa portuan, herria esnatu da itsas haizeak dakarren sekretua; zainetan kresala eta mingainean olatua, ematen jarraitzeko gure kantua.

Zubi zaharretik dator marea gora kanpandorreraino dena bustiko da.

Eskutik hartu eta ez da jausiko zubixe. Geu ga eusten daben herrixle!

FITXA TEKNIKOAK

Abestia eta melodia: Axular Arizmendi.
Hitzak: Leire Bilbao
Abeslariak: Aiora Renteria - Eñaut Elorrieta.

Kolaborazioak:
Zubi Zahar Herri Ikastolako umeak (Ahotsa)
Leokadi (Ahotsa)
Larraitz Ormaetxea (Irrintziak)
Nerea Gartzia (Irrintzia)
Aiora Ponce (Irrintzia)
Aitzol Urkiza (Gitarra elektrikoa)
Eneko Benito (Alboka)

Konponketak: Fran Carreira.
Grabazioa, nahasketa, masterra:
Axular Arizmendi & Paxkal Etxepare
Masterizazioa: Simon Capony



BIDEOKLIPA

Bideoklipa Aiora Ponce zuzendari eta ikus-entzunezko sortzaile ondarrutarrak egin du. Zubi Zahar Herri Ikastolako ikasle ohiak ikastolako beste ikasle ohi bi izan ditu alboan ideia garatu eta gidoia idazteko, Nerea Gartzia aktorea eta Unai Guenaga ingeniari informatikoa. Bere lanik pertsonalenetarikoa bat izan da, bideoklipen bere haurtzaroko eta nerabezaroko momentu askoren islada dagoelako, eta adierazi du: "Benetan ohore bat izan da lan hau egin izana".

FITXA TEKNIKOAK

Zuzendaritza: Aiora Ponce
Kudeaketa: Unai Guenaga eta Zubi Zahar Herri Ikastola

Bideoklipa hemen dago ikusgai



https://youtu.be/3UOQa1baJ_k

Abestia hemen dago entzungai:
<http://open.spotify.com/album/6FiMak1a4rO7KJxMTgkxaT>

EUSKAL JAXE

Martxoaren 25ean

IBILALDIAREN ekimenez, "Euskal jaxe" atondu zuten Ondarroan; "Ibilaldi txiki bat", antolatzaileen esanetan, entsegu orokor baten pare. Ondarroako, Lekeitioko, Markina-Xemeingo eta Mutrikuko dantzari, txistulari, panderojole eta trikitilariak herri osoa jarri zuten dantzan egun osoz, eta poz giroa egun guztira zabaldu



ERRONKA

Taldean jolastuz harremanak eginez



IBILALDIKO Erronka taldeak ginkana erronka bat osatuko du 19 jarduera desberdinekin eta helburu honekin: gazteek jarduera fisiko edo ludikoak egitea herrian bertan, eta Ondarroa eza-gutzea ikuspuntu desberdinetatik. Abiapuntua eta amaiera Zeledoniko gunea izango da ("Herrixe"), eta hasiera ordua 10:30ean.

Erronka txikiak antolatu dituzte, taldean egitekoak, nor bere kideekin edo beste batzuekin nahastuta. Batzuetan, gainera, jendearen laguntza eskatu beharrean egongo dira zenbait erronka bete-tzeko.

"Era horretara lortuko dugu herriari bizitasuna ematea goizean goizetik. Gauza ederra izango da gazteak batetik bestera jolasten ikustea. Eta hori dena Ondarroako kulturarekin lotutako gauzak ikastea, besteak beste, bertoko hizkerarekin, historiarekin eta kokapenarekin lotura daukaten gauzak. "Guk nahi duguna da gazte guztiak pozik ibiltzea eta ahal dela harreman berriak egitea", nabarmendu dute.



"Itsasokoak gara eta bere etorkizunarekin konprometituta gaude".



Cofinanciado por la Unión Europea

HELBURUEKIN BAT EGINEZ ETA EROSOTASUNEZ

Garraio publikoa erabili!



JENDEA Euskal Herriko hainbat lekutatik helduko da Ondarroara maiatzaren 2lean. Lagun asko espero dira, eta herrira heltzea denentzako errazagoa eta erosoagoa izan dadin, garraio publikoa erabiltzeko gomendioa egin nahi du Ibilaldia Elkarteak.

Euskotrenek eta Bizkaibusek zerbitzu berezia jarriko dute martxan Ibilaldia dela eta: Euskotrenek Trañara zerbitzua emango du, eta handik, ordu erditik behin autobusak irtengo du Ondarroara, 09:50etik 13:30era; eta Ondarroatik Trañara, 17:10etik 20:50era.

Bestalde, lau aparkaleku egokituko dira: bi Bizkaitik datozenentzat, Gardotza industrialdean eta Cikautxo kooperatiban, eta beste bi Gipuzkoatik datozenentzat, Saturraran hondartzan eta Mijoa industrialdean. Aparkalekuetatik transbordadore zerbitzua egongo da. Gainera, bari-kutik aurrera, Saturraranen autokarabantzeko lekua egokituko da.

Ikastolaren izaera eta Ibilaldirako helburuak

ONDARROAKO Zubi Zahar Herri Ikastola duela bost hamarkada baino gehiago sortu zen, herritik sortu ere izean bertan harrotasunez erakusten duen bezala. Hasiera-hasieratik aldarrikatu du Euskal Herri osorako hezkuntza sistema euskalduna, euskara eta lurraldetasuna ardatz zentralak izanik, eta helburu horiek bere horretan jarraitzen dute. Era horretara, jatorriko izaera mantentzen du, eta oraindik orain bazkideen partaidetzarekin, elkarlanarekin eta auzolanarekin egiten du aurrera. Era berean, ikastolen arteko elkartasunari esker, alde batetik, ikastola berriak sortuz doaz, eta, bestetik, sortuta daudenak sostengatzen dira.

Ibilaldia ez da egun bakarreko jaialdi soil bat, baizik eta urte osoan garatuz doan proiektua. 2023ko maiatzaren 2lean ospatuko dugu Ibilaldia, eta familia zein lagunekin elkarrekin eta euskaraz ospatzeko eguna izatea nahiko genuke, ikastola eta euskal kultura Euskal Herriko zirikitu guztietara zabalduz.



IBILALDIRAKO HELBURUAK

1. Euskara eta euskal kultura ardatz dituen gure ikastola herrira zabaltzea.
2. Herriko eragile eta taldeekin harremanak sendotzea.
3. Gure hezkuntza komunitateak ikastolarekiko duen atxikimendua areagotzea.
4. Ikasleei auzolanaren garrantzia erakustea guraso eta ikastolako komunitate osoa eredu izanik.
5. Arkitektura pedagogia berrietara egokitzeko baliabide ekonomikoak lortzea.

NABERAN

Zure laguna itsasoan !!!

www.naberan.com



armearri
KAUTXOAK

TALDE LANAREN FRUITU



Elkarlanaren uzta oparoa

TALDE lanak egiten du posible Ibilaldia aurrera ateratzea, ikastolen euren izaeraren ispilu. Beste behin elkarlanean, ehunka lagun aritu dira, batetik, urte guztiko ekimenak aurrera ateratzen, denda, azoka eta kultur eta kirol ekitaldiak posible egiteko gogor lan eginez, eta, bestetik, eguna bera antolatuz. Eta beste behin, oraingo eta lehenengo ikasle, irakasle eta gurasoek ezeze, ikastolari bere ekarpena egin nahi dioten herritar ugari batu zaizkie zereginen.



egoin WOOD GROUP

Konponbidea gara. Egurra gara.



IBILALDIAREN AURRETIK

Giroa berotzeko ekimen arrakastatsuak

IBILALDIAREN aurretik, hainbat ekimen antolatu dira giroa berotzeko, publiko eta gustu guztiak asetzeko mdoukoak. Kultura-aren arloan, antzerkia, zinea, musika, ipuin kontaketa, txotxongiloak eta pailazoak egon dira, eta kirol eskaintzan, Boga mendi martxa, ping pong lehia-keta, Naberan krosa eta Genuine futbol torneoa.



IBILALDIAREN AURRETIK



2023
Ikasturtea
2024

Erdi Mailako Gradoak

- ✓ Ontzi eta Itsasontzien makineria
- ✓ mantentzea eta kontrola
- ✓ Itsasertzeko Nabigazioa eta Arrantza

Goi Mailako Gradoak

- ✓ Ontzi eta Itsasontzi Makineria Mantentze
- ✓ Lan Antolaketa
- ✓ Itsas Garraioa eta Altuerako Arrantza

Zatoz
gurekin!

Kamiñazpi Kalea, 13
Ondarroa-Bizkaia 48700

info@arrantzaeskolaondarroa.org

Aurrematrikulak
Maiatzaren 8tik 26ra

946 83 02 06

www.arrantzaeskolaondarroa.org



Euskararen mundu berriak aztertzen



Hemen Euskal talentua daukagu



harrobia

Lanbide Heziketa Ikastola Integratua

LANBIDE HEZIKETA
DUALA

Aukera paregabea zure enpresarentzat
23- 24 ikasturtean parte hartu!

3D ETA ERREALITATE BIRTUALA · MARKETINA · JARDUERA FISIKOA · INFORMATIKA



Te : 94 472 43 66 | 688 650 113
Harrobia Plaza, 4. 48003 BILBO
info@harrobia.net

Informatu eta jarri gurekin harremanetan



Bizkaiko Foru
Aidundia
Diputación
Foral de Bizkaia

